

PRENTSA OHARRA

BC3ko Trade-SCAN, Europako Batzordeak "European Economic Forecast"
txostenean aipatua

Europako Batzordeak BC3k garatutako tresna bat
erabiltzen du COVID-19ren inpaktu ekonomikoak
ebaluatzeko



- **BC3ko Iñaki Arto (irudian) buru duen ikertzaile talde batek garatutako Trade-SCAN tresna** Europako Komisioak (EK) erabili du koronabirusaren krisiaren inpaktu ekonomiko batzuk aztertzeko.
- EKren txostenaren emaitzek ondorioztatu dutenez, Europar Batasuneko (EB) ekoizpen ekonomikoa ia % 16 txikiagoa izango da 2019ko azken hiruhilekoan baino, eta **EBko BPGaren uzurtzea % 7,5ekoa izango da aurten, 2009ko finantza-krisian baino askoz ere sakonagoa.**

[Bilbo, 2020ko maiatzaren 12a] EK-k Basque Centre for Climate Change (BC3) erakundeko Iñaki Arto buru duen ikertzaile talde batek garatutako tresna informatiko bat erabili du COVID-19ren inpaktu ekonomiko batzuk aztertzeko.

2

Maiatzaren 5ean, EKK "European Economic Forecast" (https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/economy-finance/ip125_en.pdf) izeneko txostena argitaratu zuen. Txosten horrek Erkidegoaren egoera ekonomikoa aztertzen du, eta erakunde horrek, Europar Batasuneko Kontseiluak (EBK) eta Europako Parlamentuak (EP) egindako politika ekonomikoen formulazioa sendotzeko balio du.

Koronabirusaren krisiak eragindako inpaktu ekonomiko batzuen azterketan, **EKren txostenak Trade-SCAN softwarea erabili du, Iñaki Arto (BC3) buru duen ikertzaile talde batek garatua**, EKren Joint Research Centre (JRC), Aragonese Foundation for Research & Development (ARAID) eta Herbeheetako Groningen Unibertsitatearekin lankidetzan. Interfaze grafiko bat duen eredu bat da, nazioarteko merkataritzaren eta balio-kate globalen ondorio sozioekonomikoak eta ingurumenekoak aztertzeko aukera ematen dituen.

Txostenak dioenez, "**oraingo hiruhilekoan, EBN ekoizpen ekonomikoa 2019ko azken hiruhilekoan baino ia %16 txikiagoa izango da**. Litekeena da jarduerak gora egitea konfinamendu neurrien pixkanakako murrizketarekin, baina aurtun EBko BPGren uzurtzea % 7,5ekoa izatea espero da, 2009ko finantza krisian baino askoz ere sakonagoa". Hori dela eta, **EBko arduradunek hainbat neurri onartu dituzte**, hala nola, 100.000 milioi euroko plana sortzea langabezia arriskuak arintzeko, edo ETEentzat 25.000 milioi euroko berme funtsa.

Tresna honen emaitzek, eragin sozial eta politikoak sortzen ari dira, EKK publikoki eta hainbat komunikabideetan aipatuz. Adibidez, Artoren lanak balio izan du EBN merkataritza jarduerak zenbat enplegu sortzen dituzten jakiteko. Zehazki, 31 milioi langile 2012an, eta 36 milioi 2016an. Jean Claude Juncker eta Ursula von der Leyen EKko presidenteez eta Cecilia Malmstrom Merkataritza Komisarioak datu hauek aipatu dituzte.



Cecilia Malmström ✓
@MalmstromEU

Follow



Trade delivers. Recent research shows that EU exports support 36 million jobs in the EU and 20 million jobs abroad.

"JRCn egin nuen hiru urteko doktoretza ondoko egonaldian, nire jardueraren zati bat **globalizazioaren ondorio ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak** ikertzeko izan zen, JRCko, Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiko eta Groningengo Unibertsitateko langileekin elkarlanean. Orduetik horiekin guztiekin jarraitu dut lanean, eta Trade-SCAN da elkarlan horren fruitua. Hain zuzen ere, ereduak Erik Dietzenbacher irakaslearekin (Groningengo Unibertsitatea) eta Jose Manuel Rueda-Cantucherekin (JRC) batera garatu nuen, datu baseak Ignacio Cazcarroekin (ARAID) batera, eta softwarea Antonio Amores (JRC), María-Victoria Román (JRC) eta Miguel Perez programatzailearekin batera ", azaldu du Artok.

Ikerketa-jarduera horren ondorioz, BC3ko ikertzaileak **lau artikulu zientifiko argitaratu ditu eragin handiko aldizkari espezializatuetan**, hala nola *Energy Policy* edo *Ecological Economics* aldizkarietan, zortzi txosten zientifiko eta liburu kapitulu bat.

Kontaktua

Prensa Saila

press@bc3research.org

+34 944 014 690

BC3ri buruz

Basque Centre for Climate Change (BC3) diziplina anitzeko nazioarteko ikerketa-zentroa da, eta Bilbon du egoitza, Eusko Jaurlaritzak zientzia eta ikerketa sustatzeko sortu zuen. Zentroa BERCen (Basque Excellence Research Center) artean dago, eta bazkideen artean ditu Ikerbasque, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Iñobe, Ingurumena Kudeatzeko eta Kontserbatzeko Euskal Sozietatea.

[Baliabideak](#)

Tresnak emandako datuei EBk egindako erreferentzien irudiak